

Bertaratutako kideak:

Pablo Arriazu Amat

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pilar López Valderrama

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

Gil Sevillano González

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Santiago Álvarez Folgueras

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Arantxa Ruiz Vidorreta

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

María Jesús Salanueva Uriarte

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)

Koldo Sebastián del Cerro

Entzute handiko pertsona

Isabel Fernández Pan

Sindikatuaren ordezkaria (UGT)

Luis Calatayud Yuste

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Iruñean, 2023ko abenduaren 20ko 16:55ean, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, Manuel Martín Iglesias kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola idazkari dela, honako gai-zerrenda honekin:

1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra.
2. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
3. Kontseiluburuaren informazioa.
4. Lan batzordeak. Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluko kide bat izendatzea.
5. Aurrekontuaren aurreproiektua 2023-2024 ikasturterako.
6. 2023-2024 ikasturterako lan planaren zirriborria.
7. 2022-2023 ikasturteko memoriaren zirriborria.
8. 2022-2023ko NHST txostenaren kapituluaren zirriborria.

José Paulos Vázquez

Ikastetxeetako Administrazio eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

9. 2023ko 1. seihilekoko kontuen zirriborroa.

10. Galde-eskeak.

Teresa María Arriaga Iraburu

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien
ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

Cristina Bayona Saez

Unibertsitateen ordezkaria (NUP)

Nahia Garaikoetxea Salinas

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria (SORTZEN)

Ignacio Catalán Librada

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

María Inmaculada Jurío Macaya

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-
E)

Eneka Maiz Ulaiar

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

Josu Reparaz Leiza

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (Nafarroako Ikastolen Elkarte)

Antonio Angel Moleón Segura

Toki entitateen ordezkaria

Jesús Basarte Galbete

Enpresarien elkarten ordezkaria.

Ezin etorria adierazi dute:

M^a Soledad Garjón López

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (AFAPNA)

María Teresa Módol Betriu

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (CONCAPA)

Carlos Rodrigo Guerra

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (ANPE).

Roberto Pérez Elorza

Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Ez dira bertaratu:

Francisco Javier Martínez Domingo

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Mari Luz Sanz Escudero

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen
ordezkaria (CERMIN)

Esther Monterrubio Ariznabarreta

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Sonia Rivas Borrell

Unibertsitateen ordezkaria (Nafarroako
Unibertsitatea)

Patricia Reloba Acevedo

Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioen
ordezkaria (BRITILA)

Ladis Satrústegui Alzugaray

Toki entitateen ordezkaria

1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra.

Kontseiluburuak ongietorria egin die Nafarroako Eskola Kontseiluko kide berriei eta Kontseiluan jarraitzen duten kideei, eta hitza eman dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari.

Hezkuntzako kontseilariak hitza hartu eta ongietorria egin die kide berriei, eta Kontseiluan jarraitzen dutenei eskerrak eman dizkie aurreko legegintzaldian egindako lanagatik eta ahaleginagatik. Adierazi du Hezkuntza Departamentua lantzen ari den araudiko berrikuntzak jakinarazi nahi dizkiola Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurari, hala nola Eskola Jantokien Erregelamendu berria, eskola orduetan mugikorra erabiltzeko erregelamendua eta abar.

Halaber, adierazi du Nafarroako Eskola Kontseiluari eskatu diola jardunaldi batzuk egin ditzala, ikasmaita errepikatzeari eta ikasmaitaz igotzeari buruz, bere ustez aztertu eta landu beharreko arazoa baita.

2. Aurreko bileraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea baduten alegaziorik edo iruzkinik aurreko bileraren aktari buruz.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

3. Kontseiluburuaren informazioa.

Kontseiluburuak Nafarroako Eskola Kontseiluak 2023ko azaroaren 6tik abenduaren 20ra bitartean izandako jardueraren berri eman du.

4. Lan batzordeak. Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluko kide bat izendatzea.

Kontseiluburuak lan batzordeei buruzko informazioa eman du eta nola lan egiten duten azaldu du. Proposatu du kontseilukideek lan batzordeetan sartzeko beren proposamenak egin ditzatela, posta elektronikoko bat bidalita.

Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua osatzeko kide bat izendatzeari dagokionez, kontseiluburuak proposatu du Batzorde Iraunkorrean erabakitako irizpidea onartzea; hau da, tandem bat osatzea eskola publikoko irakasleen ordezkari batekin eta ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen federazioaren ordezkari batekin, eta beste tandem bat osatzea itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkari batekin eta itunpeko ikastetxe pribatuetako guraso-elkarteen federazioko ordezkari batekin. Tandem horietan parte hartzen duen entitate bakoitzak hautagaiak proposatuko ditu eta Kontseiluaren Osoko Bilkurak egingen dio proposamena Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluari.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

5. Aurrekontuaren aurreproiektua 2023-2024 ikasturterako.

Kontseiluburuak aurrekontuen aurreproiektuaren edukia azaldu du, eta onar dadila eskatu du.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

6. 2023-2024 ikasturterako lan planaren zirriborroa.

Kontseiluburuak aurreikusitako Lan Plana banatu du eta azalpen labur bat egin du. Jarraian, 2023-2024 ikasturterako Lan Plana onar dadila eskatu du.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

7. 2022-2023 ikasturteko memoriaren zirriborroa.

Kontseiluburuak adierazi du memoria Nafarroako Eskola Kontseiluko kideen eskura egon dela, azter dezaten, eta ez dutenez zuzenketarik aurkeztu, onar dadila eskatu du.

Onartu da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

8. 2022-2023ko NHST txostenaren kapituluaren zirriborroa.

Kontseiluburuak adierazi du NHST txostenaren kapituluak Nafarroako Eskola Kontseiluko kideen eskura egon direla, azter ditzaten, eta ez dutenez zuzenketarik aurkeztu, onar daitezela eskatu du.

Onartu dira, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

9. 2023ko bigarren seihilekoko kontuen zirriborroa.

Kontseiluburuak bigarren seihileko honetako kontuak azaldu ditu, eta onar daitezela eskatu du.

Onartu dira, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

10. Galde-eskeak.

Ez dago.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte-hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 18:00etan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.